

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2017/18

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

3. maila

**IRAKASGAIA**

25955 - Bake Kultura

**ECTS kredituak:**

4,5

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Bake kultura ikasgaia gizarte langintza graduko &#8220;Gatazketan Esku Hartzea eta Gatazken Eraldaketa&#8221; moduluaren parte da, 4,5 kredituko hirugarren mailako ikasgai hautazkoa izanik. Minor barruan izaera teoriko eta filosofiko handienetarikoa ikasgai bat da. Trebetasun abstraktuak, kritiko-analitikoak, eta sormena garatzen dutenak lantzen dira ikasgaian. Ikasleek gizarte langintzako egoera konplexuei aurre egiteko ahalmena eskuratzea bilatzen da, baita ikasleek ohiko esparruetatik kanpo pentsatzeko eta egoera berriei aurre egiteko trebetasun kontzeptualak garatzea.

Bake Kultura, ikerketa eta ikasketa gai moduan, kulturaren oinarriak duten bortizkeria eta gerrateen kausei aurre egiteko sortu zen; Nazio Batuen konstituzioak dioenez: &#8220;gerrateak gizakien gogoan hazten dira eta gizakien gogoan eraiki behar dira bakearen gotorlekuak&#8221;. Ikasgai honek bakea eta bortizkeriaren kontzeptuen hausnarketa sakon eta kritiko bat garatzen du, gizadiaren naturarekiko erlazioa, bakea/bortizkeria eta kultura zein gizarte egituraren arteko harremana landuko dira, betiere ikuspegi filosofikoa oinarritzat hartuz eta gizarte langintzara bideratuta. Kurtsoan zehar hurrengo gaiak aztertu egingo dira: giza agresibitatea eta bere garapen soziala, bakearen definizio zehatz batetarako kriterioak, bortizkeria mota ezberdinak, bakea, justizia eta bidezatasunaren arteko erlazioak, bakearen, ez-bortizkeriaren eta armagabetzearen aldeko giza mugimenduak, bake kulturaren oinarritzen diren kudeaketa eta gizarte antolaketa motak.

Ikasgaiaren ebaluazioaren gehiengoa (%80) saiakera labur baten garapenean oinarritzen da, ikasleak aukeran izango ditu saiakera egiteko 30 gai inguru. Ikaslearen ahalmen kritiko eta gogoetatsua, argumentaziorako eta testuinguratzeko gaitasuna, sormen erlazionalean, kontzeptuala eta teorikoa zein idazkera formalerako trebetasuna hartuko dira kontutan ebaluaziorako. Aldi berean klaseko partehartzea eta elkar kooperaziorako trebetasuna ere kontutan hartuko dira elkar-ebaluaziorako (%20).

Klaseko metodologiari begira, ikasgai honetan irakaslearen aurkezpenak, talde dinamikekin (puzlea, role-playing-a, ideia ekaitza, talde hausnarketa, etabar) zein testuen eta bideoen hausnarketa kritikoarekin osatzen dira.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

K08: Ahalmen kritiko-erreflexibo, komunikatibo, erlazional, sare eta lantaldekoen garapena, baita lanbide-etika, oinarritzeko guztiak gizarte eta hiritar partehartze prozesuen inguruko sustapen, antolaketa, jarraipen eta inplikazio konpromezua bereganatzeko. [M05CM08: G004, G007, G010]

K09: Gizarte langintzako edozein arlo profesionalaren inguruko txosten garepena eta ideien transmititzea, argitasun eta koherentziaz, publiko espezializatu zein ez-espezializatuari begira, kasuan kasu beharbesteko hizkuntza konpetentzia erabiliz. [M05CM09: G010]

K07: Gizarte marginalizazio eta bazterte egoera ezberdinen inguruko azterketa eta interpretazio kritikoak egitea, non inplikaturiko pertsona zein kolektiboaren definizio, balorazio eta argudiaketak kontutan hartzen diren. [M05CM07: G001, G002]

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

Bake kultura ikasgaiko gaiak hurrengoak dira (eta hurrengo unitate didaktikoetan izango dira banatuak), Kalitatearen eta Akreditazioaren Ebaluaziorako Agentzia Nazionalak (ANECA) adostu gisa:

Gaiak:

1. Gaia: Sarrera antropologikoa: gizakiak animalia sinboliko eta linguistiko moduan [2. eta 3. UD]
2. Gaia: Bake kontzeptuaren historia [4. UD]
3. Gaia: Bakearen hiru dimentsioak: gizarte, ekologia, norberakoa [3. UD]
4. Gaia: Gatazkak eta bortizkeria kulturala [4., 5. eta 8. UD]
5. Gaia: Interpretazioaren problema: elkarrizketa eta tolerantzia [4. eta 5. UD]
6. Gaia: Generoa, bakea, diskurtsoa [4. eta 6. UD]
7. Gaia: Erlazioen arteko elkarrizketa [4. UD]
8. Gaia: Bakearen eraikuntza prozesua (denbora eta infrastruktura dimentsioak). [3., 5., 7. eta 9. UD]

Unitate didaktikoak:

1. Bake kulturarako sarrera
2. Bakerako Heziketa
3. Bakerako oinarri sistemikoak, autonomia eta oreka dinamikoa biologian, gogoan eta gizarte-ingurunean
4. Bortizkeria eta Bakea definitzen: bake kulturak, sinboloak eta historia
5. Modernitatea eta postmodernitatea: bakea eta bortizkeria estrukturala eta kulturala
6. Desobedientzia zibila, antimilitarismoa, bake mugimenduak, desarma eta ez-bortizkeria aktiboa
7. Mikropolitika, asamblearismoa eta erabaki hartze horizontala, jabetasun kolektiboa
8. Bakerako ziberkultura
9. Bakeratze prozesuak, adiskidetzea eta gatazken biktimak

## METODOLOGIA

Klaseko metodologiari begira, ikasgai honetan irakaslearen aurkezpenak, talde dinamikekin (puzlea, role-playing-a, ideia ekaitza, talde hausnarketa, etabar) zein testuen eta bideoen hausnarketa kritikoarekin osatzen dira. Ikasleek klasean landutako edukien ikerketa, irakurketa, gogoeta eta sistematizazio ariketa egin beharko dute, klasean proposatutako testuen analisi kritikoarekin eta haiek haien ikerketa lana egiteko aukeratutako materialen analisi kritikoarekin batera.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	33,75		11,25						
<b>Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.</b>	50,5		17						

### Legenda:

M: Macistrala  
S: Mintecia  
GA: Gelako p.  
GL: Laborateiko p.  
GO: Ordenaailuko p.  
GCL: P. klinikoak  
TA: Tailerra  
TI: Tailer Ind.  
GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Banakako lanak % 80
- Saiakeren elkar-berrikustea (Elkar laguntza) % 20

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasgaiaren ebaluazioaren gehiengoa (%80) saiakera labur baten garapenean oinarritzen da, ikasleak aukeran izango ditu saiakera egiteko 30 gai inguru. Ikaslearen ahalmen kritiko eta gogoetatsua, argumentaziorako eta testuinguratzeko gaitasuna, sormen erlazonala, kontzeptuala eta teorikoa zein idazkera formalerako trebetasuna hartuko dira kontutan ebaluaziorako. Aldi berean, klaseko partehartzea eta elkar kooperaziorako trebetasuna ere kontutan izango dira elkar-ebaluaziorako (%20). Saiakera egin ez duten ikasleek azterketa final bat egiteko aukera izango dute, ikasleek ebaluazio finalerako eskubidea baitute aldez aurretik eskatu gabe.

### EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

Saiakera: K07, K08, K09 konpetentziak ebaluatuko dira, ikaslearen ahalmen kritiko eta erreflexiboa, zein bere gaitasun argumentatiboa eta testuinguratzeko ahalmena, aldi berean testuen aukezpena, sormen erlazonala, kontzeptuala eta teorikoa kontutan izango dira.

Saiakeren elkar-berrikusterako: K08 eta K09 konpetentziak kontutan izango dira, arrazoiketa egitura eta txostenen ulermen eta ebaluazio ahalmena oinarritzat hartuz.

Klasera etortzeko gaitasuna duten ikasleek ikerketan eta gogoeta kritikoan oinarritutako formakuntza nahiz ikasketa prozesua aurrera eramateko aukera izango dute. Haien ebaluazioa saiakera filosofiko labur baten idazketan eta bi klasekideen saiakeren berrikustean oinarrituko da. Nahi izan ezker, ikasle hauek nota igotzeko lan gehigarri bat egiteko aukera izango dute baita ere. Gauzak horrela, saiakerak gehienez ikasgaiaren azkeneko notaren 8 puntu balioko ditu (10 puntutatik), saiakera gaintzea (hau da, 8 puntuetatik gutxienez 4 ateratzea) ikasgaia gaintzeko ezinbesteko baldintza izanik. Azkeneko notaren beste bi puntuak klasekideen saiakeren berrikuspenen bidez eskuratu ahal izango dira (puntu bat berrikuspen bakoitzeko gehienez).

Hortaz, azkeneko nota maximoa, 10a, hurrengo bi moduetan lortu ahal izango da:

Azterketa = %100

Saiakera (% 80) + Klasekideen saiakeren berrikuspenak (%20) = %100

Ebaluazio jarraiaren prozesua hasi duen ikasleak, ebaluazio jarraiari uko egiteko eta azkeneko ebaluaziora aurkezteko aukera izango du. Horretarako, irakasleari esan beharko dio ikasgaia hasi eta, gutxienez, 9 aste pasa ondoren.

Ikasleek ohiko ebaluazio deialdira uko egiteko eskubidea daukate, irakasleari idatzizko eskaria eginez ikasgaia amaitu baino hilabete bat lehenago gutxienez. Ebaluazio jarraiaren prozesua hasi baldin badu ikasleak eta ebaluaziorako lan batzuk aurkeztu baditu jada, ebaluazio jarraiari uko egiten diola idatziz esan beharko dio, azkeneko notan "Ez aurkeztua" azaldu dadin eta ez "Suspensoa" entregatu beharreko lan guztiak entregatu ez izanagatik.

### KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

Saiakeraren nota hurrengo irizpideak jarraituz jarriko da:

- a. Bake kulturako oinarrizko kontzeptuen ulermena zein bere erlazioa gaztazka ebazpen eta gizarte langintzarekin.
- b. Ahalmen kritiko, erreflexibo eta erlazionala ikasgaiko beste edukiekin
- d. Eduki eta kontzeptuen aurkezpen egoki eta egituratua, arrazoiketa argia funtsezkoa izanik.
- e. Saiakeraren egokitasun formala: txantiloia, bibliografia, erreferentziak, zitak, laburpena, etabar.

Idatziko proba edo azterketaren kalifikazio irizpideak hurrengoak dira:

- a. Bake kulturako oinarrizko kontzeptuen ulermena zein bere erlazioa gaztazka ebazpen eta gizarte langintzarekin.
- b. Ahalmen kritiko, erreflexibo eta erlazionala ikasgaiko beste edukiekin.
- d. Eduki eta kontzeptuen aurkezpen egoki eta egituratua, arrazoiketa argia funtsezkoa izanik.

#### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ez-ohiko deialdirako, ikasleek saiakera aurkezteko (kasu honetan, ebaluazio jarraiaren prozesuan egindako lanen notak gordeko zaizkio ikasleari, lan horiek gainditu baditu soilik beti ere: Klasekideen saiakeren berrikuspenak) edo azterketara aurkezteko aukera izango dute.

#### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

UNESCO. (1999). Declaración y Programa de Acción sobre una Cultura de Paz. Tomado de:

[http://www.unesco.org/pv\\_obj\\_cache/pv\\_obj\\_id\\_6F70A33601FBEEF2A4518892FC55656D69850000/filename/sun-cofp.pdf](http://www.unesco.org/pv_obj_cache/pv_obj_id_6F70A33601FBEEF2A4518892FC55656D69850000/filename/sun-cofp.pdf)

Galtung, J. (2004). Violencia, guerra y su impacto. Sobre los efectos visibles e invisibles de la violencia. Polylog: Foro para filosofía intercultural, 5. Tomado de:

<http://them.polylog.org/5/fgj-es.htm>

Muñoz, F. A. (2004). La Paz. En M. R. Beatriz & F. A. Muñoz (Eds.), Manual de paz y conflictos (pp. 23&#8211;41).

Universidad de Granada. Tomado de: <http://www.ugr.es/~eirene/publicaciones/manual/La%20Paz.pdf>

Muñoz, F. A., & Molina Rueda, B. (2010). Una Cultura de Paz compleja y conflictiva. La búsqueda de equilibrios dinámicos. Revista de Paz y Conflictos, (3), 44&#8211;61.

Tuvilla, J. (2004). Cultura de Paz y Educación. En M. R. Beatriz & F. A. Muñoz (Eds.), Manual de paz y conflictos (pp. 389&#8211;425). Universidad de Granada. Tomado de: [http://wdb.ugr.es/~eirene/wpcontent/files/publicaciones/ColeccionEirene/eirene\\_manual/Cultura\\_de\\_Paz\\_y\\_Educacion.pdf](http://wdb.ugr.es/~eirene/wpcontent/files/publicaciones/ColeccionEirene/eirene_manual/Cultura_de_Paz_y_Educacion.pdf)

#### **BIBLIOGRAFIA**

##### **Oinarrizko bibliografia**

Beatriz, M. R., & A, M. M., Francisco (Eds.). (2004). Manual de paz y conflictos. Universidad de Granada.

[http://www.ugr.es/~eirene/publicaciones/eirene\\_manual.html](http://www.ugr.es/~eirene/publicaciones/eirene_manual.html)

Bourdieu, P. (1997). Razones Prácticas: Sobre la Teoría de la Acción. Anagrama.

<http://epistemh.pbworks.com/f/9.%2BBourdieu%2BRazones%2BPr%C3%A1cticas.pdf>

Buey, F. F., Mir García, J., & Prat Carvajal, E. (Eds.). (2010). Filosofía de la PAZ. Icaria.

Clastres, P. (1978). La sociedad contra el estado. Monte Avila Editores. Retrieved from

<http://www.kclibertaria.comyr.com/lpdf/l214.pdf>

Fernández, A. (1994) Educando para la paz. Nuevas propuestas. Granada: Universidad de Granada,

Fisas, V., & Armengol, V. F. (1998). Cultura de Paz y Gestión de Conflictos. Icaria Editorial.

Galtung, J. (1999). Tras la Violencia, 3R: Reconstrucción, Reconciliación, Resolución: Afrontando Los Efectos Visibles e Invisibles de la Guerra y la Violencia. Bakeaz.

Galtung, J. (2003). Paz por medios pacíficos: Paz y conflicto, desarrollo y civilización. Bakeaz.

Gandhi, M. (2008). Autobiografía: Historia de mis experiencias con la verdad. Grupal Logística y Distribución. Tomado de

[http://www.pensarenvozalta.org/documentos/gandhi\\_autobiografia.pdf](http://www.pensarenvozalta.org/documentos/gandhi_autobiografia.pdf)

Guzmán, V. M. (2001). Filosofía para hacer las paces. Icaria.

Lederach, J. P. (2000). El Abece de la Paz y Los Conflictos: Educación Para la Paz. Los Libros de la Catarata.

Lederach, J.P. (1998). Construyendo la paz. Reconciliación sostenible en sociedades divididas. Bilbao: Bakeaz/Gernika Gogoratz.

Lessig, L. (2005). Por una cultura libre: Cómo los grandes grupos de comunicación utilizan la tecnología y la ley para clausurar la cultura y controlar la creatividad. Traficantes de Sueños.

López Martínez, M. (2004). Enciclopedia de paz y conflictos (Vols. 1-2). Universidad de Granada.

Movimiento Objeción de Conciencia. (2002). En legítima desobediencia: tres décadas de objeción, insumisión y antimilitarismo. Traficantes de Sueños: <http://www.antimilitaristas.org/IMG/pdf/LIBRO.pdf>

Muller, Jean Marie. (1995) Gandhi: la sabiduría de la no violencia. Desclée de Brouver.

Muñoz, F. A. M., & Carmona, J. B. (2011). Los hábitos de la paz: Teorías y prácticas de la paz imperfecta. Editorial Universidad de Granada.

Padilla, M. (2012). El Kit de la Lucha en Internet. Madrid: Traficantes de Sueños. Tomado de

[http://www.traficantes.net/index.php/content/download/31164/291295/file/lem05\\_kit\\_de\\_internet\\_web.pdf](http://www.traficantes.net/index.php/content/download/31164/291295/file/lem05_kit_de_internet_web.pdf)

Panikkar, R. (1993). Paz y Desarme Cultural. Editorial SAL TERRAE.

UNESCO. (1999). Declaración y Programa de Acción sobre una Cultura de Paz.

¿i¿ek, S. (2009). Sobre la violencia: Seis reflexiones marginales. Editorial Paidós.

##### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

Bourdieu, P. (1997). Razones Prácticas: Sobre la Teoría de la Acción. Anagrama.

<http://epistemh.pbworks.com/f/9.%2BBourdieu%2BRazones%2BPr%C3%A1cticas.pdf>

Clastres, P. (1978). La sociedad contra el estado. Monte Avila Editores. Retrieved from

<http://www.kclibertaria.comyr.com/lpdf/l214.pdf>

Gandhi, M. (2008). Autobiografía: Historia de mis experiencias con la verdad. Grupal Logística y Distribución. Tomado de

[http://www.pensarenvozalta.org/documentos/gandhi\\_autobiografia.pdf](http://www.pensarenvozalta.org/documentos/gandhi_autobiografia.pdf)

Movimiento Objeción de Conciencia. (2002). En legítima desobediencia: tres décadas de objeción, insumisión y

antimilitarismo. Traficantes de Sueños: <http://www.antimilitaristas.org/IMG/pdf/LIBRO.pdf>

Muller, Jean Marie. (1995) Gandhi: la sabiduría de la no violencia. Desclée de Brouver.

Padilla, M. (2012). El Kit de la Lucha en Internet. Madrid: Traficantes de Sueños. Tomado de

[http://www.traficantes.net/index.php/content/download/31164/291295/file/lem05\\_kit\\_de\\_internet\\_web.pdf](http://www.traficantes.net/index.php/content/download/31164/291295/file/lem05_kit_de_internet_web.pdf)

Panikkar, R. (1993). Paz y Desarme Cultural. Editorial SAL TERRAE.

¿i¿ek, S. (2009). Sobre la violencia: Seis reflexiones marginales. Editorial Paidós.

### **Aldizkariak**

Revista de Paz y Conflictos: <http://revistaseug.ugr.es/index.php/revpaz>

Journal of Peace Research: <http://jpr.sagepub.com/>

Journal for the Study of Peace and Conflict: <http://www.uwsp.edu/cols-ap/WIPCS/Pages/journal.aspx>

Peace Conflict Development. An interdisciplinary Journal. <http://www.bradford.ac.uk/ssis/peace-conflict-and-development/>

Cultura de Paz: <http://www.revistasnicaragua.net.ni/index.php/culturadepaz>

### **Interneteko helbide interesgarriak**

<http://www.fund-culturadepaz.org/>

<http://www.bakeaz.org/>

<http://unescopau.pangea.org/>

<http://www3.unesco.org/manifesto2000/default.asp>

<http://www.culture-of-peace.info/>

[www.creatingacultureofpeace.org](http://www.creatingacultureofpeace.org)

### **OHARRAK**

Akats ortografiko zein gramatikalak, testuen idazketa desegokiarekin batera, suspentsorako arrazoi nahikoak izango dira bai idatzitako lanetan, baita azkeneko azterketan ere.